

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4164

1708/2024 EBAZPENA, uztailaren 10ekoa, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Izaskun Trigueros Rojo andrea izendatzen baita Arratsalde eta Gaueko Gainbegirale Nagusi, izendapen askez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuan.

678/2024 martxoaren 22ko Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIn Arratsalde eta Gaueko Gainbegirale Nagusi lanpostu bi izendapen aske bidez betetzeko deialdia argitaratu zen.

Batzordeak baloratu egin du aurkeztutako eskabidea, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta, Izaskun Trigueros Rojo andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da hura izendatzea, izendapen aske bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIn Arratsalde eta Gaueko Gainbegirale Nagusi.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru arau komunarekin, Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko, 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko, 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Izaskun Trigueros Rojo andrea izendatzea Arratsalde eta Gaueko Gainbegirale Nagusi, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIn.

Bigarrena.– Izendapen honek 2024ko uztailaren 15ean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendapenak egin dituen organoak edozein unetan kargugabetu ditzake izendapen askeko sistemaren bidez izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo mugiarazteak honako hau eragingo du: langilea beste lanpostu funtzional batera lekualdatuko da, baina, edo nola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko die. Hain zuzen, ezaugarri berberak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik bera zegoen antolakuntza- eta lurralde-eremu berberetan. Atxikitze horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, Osakidetzak berak ezarritako prozedurari jarraituz gauzatuko da eta lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.– Interesdunei eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIn Langileen Zuzendari-tzari Ebazpen honen berri ematea.

Bostgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, ebazpena EHAA argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Barakaldo, 2024ko uztailaren 10a.

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIn zuzendari-gerentea,
MARÍA LUZ MARQUÉS GONZÁLEZ.